

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

47 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Noingo Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Noingo Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 12an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Noingo Udalarari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko martxoaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Noingo Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Helburua (4. or.).
 - III. Norainokoa (5. or.).
 - IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. 1999ko aurrekontuaren likidazioa (6. or.).
 - IV.2. Ondare-egoeraren agerpena 1999ko abenduaren 31n (6. or.).
 - IV.3. Legezkotasuna (6. or.).
 - IV.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa 1999ko abenduaren 31n (6. or.).
 - V. Finantza egoera-orriak (8. or.).
 - VI. Iruzkin, ondorio eta gomendio orokorrak (13. or.).
 - VI.1. 1999ko gastuen aurrekontua (13. or.).
 - VI.2. 1999ko dirusarreraren aurrekontua (17. or.).
 - VI.3. Egoeraren balantzea 1999ko abenduaren 31n (20. or.).
 - VI.4. Erakunde autonomoak (21. or.).
- Gehigarria (25. or.).

I. eranskina. Noingo Udalaren organigrama 1999ko abenduaren 31n (31. or.).

II. eranskina. Erabilitako ratioak (32. or.).

Alegazioak. (33. or.).

I. SARRERA

Noain Iruñerrian dago eta, 1999ko urtarrilaren 1eko udal-eroldaren arabera, zuzenbidezko 3.879 biztanle ditu.

Udalak bere jarduerak egiteko ondoko entitate autonomoak ditu: Julian Gayarre musika eskola, Etxe Zaharra kultura patronatua eta kirol patronatua.

Bestalde, udala Iruñerriko Mankomunitatearen barruan dago, –horrexek egiten du ur-hornidurako, zabor-bilketako eta eskualdeko garraioko zerbitzuen erabateko kudeaketa-.

Hauek dira udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko kopururik garrantzitsuenak (oraindik finkatu gabekoak):

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Betetako aurrekont. gastuak	Betetako aurrekont. dirusarrerak
Udala	400	466
Musika eskola	37	39
Kultura patronatua	40	34
Kirol patronatua	20	19

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Noingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finan-

tzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipatutako legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak (ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak esaterako) eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuetan ezarzen da. Halere, 1999an araubide hori aplikatzea borondatezkoa zen, eta nahitaezko bilakatuko zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du gure iritzia agertzea honako puntu hauei buruz:

- Noaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- 1999ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.
- Zein zen Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Noaingo Udalaren 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka eta erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorreko aplikazioa.

Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsirik fiskalizazio-printzipio eta arauak jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun froga guztiak ere egin ditugu.

Udalari eta haren erakundeei buruzko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrerei eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta abenduaren 31ko

egoeraren balantzea berrikustea, eta antolaketari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Txosteneko sei ataletan zehar, Noaingo Udalaren eta haren erakundearen antolaketa, barne-kontrola, eraginkortasuna eta ekonomia hobetzeko egokitzat jo ditugun helburu, iritzi, ondorio eta gomendio orokorrak bildu dira, batez ere. Atal horiez gain bada gehigarri bat, entitateak 1999ko abenduaren 31n duen finantza egoerari buruzkoa, eta bi eranskin, data horretako entitatearen organigramari eta txostenean erabilitako ratioei buruzkoak.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Noaingo Udaleko 1999ko ekitaldiko finantza-egoera bate-ratuaren orriak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek Udalaren ardurapean burutu ziren; laburtuta bildu ditugu txosten honetako V. atalean.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IV.1. 1999ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 1999ko aurrekontuaren likidazio egoerak behar bezala agertzen ditu, fiskalizatutako ekitaldian Udalak eta haren erakunde autonomoek egindako eragiketa guztiak.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENEA 1999ko ABENDUAREN 31n

1999ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondare-egoera behar bezala agertzen du, ondoko salbuespenekin:

- Ibilgetua osatzen duten saldoen egokitasun edo fidagarritasun eza. Inbentarioa –1992koa–, gaurkotu gabe dago.
- Aurreko ekitaldietako zordunen saldoen fidagarritasun eza 1999-12-31n. Dena den, 2000ko ekitaldian auzi hori konpondu da.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Noaingo Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezatasun printzipioari jarraituz burutu da. Hala ere, kontratazio arloan, batzuetan arauak ez dira bete, txostenean ikusiko dugun moduan.

IV.4. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 1999ko ABENDUAREN 31n

Noaingo Udalak finantza egoera eroso era-kusten zuen 1999ko abenduaren 31n: diruzaintza-ko gerakin garrantzitsua -147 milioikoa-, aurrezpen garbiko ehuneko altua -ehuneko 32- eta ez du epe luzerako zorrik.

Beraz, eta datu horiei begira, Udalaren 1999ko abenduaren 31ko finantza egoera ontzat jo dezakegu. Horrek bide ematen dio etorkizunean proiektu gehiagori ekiteko.

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu Udalak ongi kudeatzen dituela aurrekontuak. Hala ere, honako hau zehaztu beharra dago:

- Aurrekontu eta kontabilitatearen kontrol eta kudeaketari dagokienez, Udalak ondoko alorretan osatu beharko lituzke, gure txostenaren VI. atale-

ko gomendioei jarraikiz: langileak, erosketak, inbertsioak, zordunen kudeaketa eta erakunde autonomoen esku hartzea. Halaber, komenigarria litzateke txosten bat egitea urtero, ekitaldi bukaeran ematen den informazioa osatzeko, sektore publikoko kontabilitate plan orokorraren arabera.

- Ez dago instalazio egokirik, udalaren bulego eta egoitzetan oso leku gutxi baitago, eta hori oztopoa da kudeaketarako eta jendea hartzeko.

V. FINANTZA EGOERA-ORRIAK

Atal hau osatzen dute ondoko finantza egoera-orriek:

- Udalaren 1999ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa.

- 1999ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Emaidza-kontua.

- Diruzaintza-gerakina.

- Udalaren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (Musika eskola, Kultura patronatua eta Kirol patronatua).

Noaingo Udaleko aurrekontuaren betetze-maila. 1999

Dirusarreraren aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasiako kreditua	Aldaketak	Behin-betiko kreditua	Aitortutako eskubideak	Betetze maila %	Kobratua	Kobrantzaren %	Kobratzeke
Zuzeneko zergak	1	116.200.000	0	116.200.000	141.650.691	122	120.710.081	85	20.940.610
Zeharkako zergak	2	51.000.000	0	51.000.000	109.021.203	214	70.618.911	65	38.402.292
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	33.110.000	0	33.110.000	39.424.940	119	29.116.254	74	10.308.686
Transferentzia arruntak	4	145.400.556	0	145.400.556	140.062.050	96	137.114.579	98	2.947.471
Ondare dirusarrerak	5	5.800.000	0	5.800.000	5.629.280	97	5.095.441	91	533.839
DIRUSARRERAARRUNTAK, GUZTIRA		351.510.556	0	351.510.556	435.788.164	124	362.655.266	83	73.132.898
Inbertsio errealak besterentzea	6	0	0	0	0	0	0	0	0
Kapital transferentziak	7	30.117.004	14.514.010	44.631.014	30.144.690	68	7.099.025	24	23.045.665
KAPITALDIRUSARRERAK, GUZTIRA		30.117.004	14.514.010	44.631.014	30.144.690	68	7.099.025	24	23.045.665
Finantza-aktiboan aldaketa	8	1.000.000	73.903.710	74.903.710	230.000	0	230.000	100	0
Finantza-pasiboan aldaketa	9	0	0	0	0	0	0	0	0
FINANTZAERAGIKETAK, GUZTIRA		1.000.000	73.903.710	74.903.710	230.000	0	230.000	100	0
DIRUSARRERAK, GUZTIRA		382.627.560	88.417.720	471.045.280	466.162.854	99	369.984.291	79	96.178.563

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin-betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetze maila %	Ordainduta	Ordainduta-koaren %	Ordaintzeke
Langileen ordainsariak	1	109.951.725	2.006.659	111.958.384	111.679.809	100	109.853.103	98	1.826.706
Ondasun arrunt. eta zerb. eros.	2	86.825.005	6.009.867	92.834.872	90.405.694	97	76.500.988	85	13.904.706
Korrituak	3	0	10.000	10.000	199	0	199	100	0
Transferentzia arruntak	4	90.523.420	10.358.835	100.882.255	100.684.717	100	90.624.417	90	10.060.300
GASTUARRUNTAK, GUZTIRA		287.300.150	18.385.361	305.685.511	302.770.419	99	276.978.707	91	25.791.712
Inbertsio errealak	6	68.327.410	49.569.819	117.897.229	49.933.001	42	43.237.470	87	6.695.531
Kapital transferentziak	7	26.000.000	21.316.317	47.316.317	47.316.317	100	30.582.128	65	16.734.189
KAPITALGASTUAK, GUZTIRA		94.327.410	70.886.136	165.213.546	97.249.318	59	73.819.598	76	23.429.720
Finantza-aktiboen aldaketa	8	1.000.000	(853.777)	146.223	100.000	68	100.000	100	0
Finantza-pasiboen aldaketa	9	0	0	0	0	0	0	0	0
FINANTZA ERAGIKETAK, GUZTIRA		1.000.000	(853.777)	146.223	100.000	68	100.000	100	0
GASTUAK, GUZTIRA		382.627.560	88.417.720	471.045.280	400.119.737	85	350.898.305	88	49.221.432

1999-12-31ko egoera balantzea (emaitzak aplikatu baino lehen)

AKTIBOA	99-12-31ko balantzea	98-12-31ko balantzea
IBILGETU MATERIALA	839.660.848	813.558.646
Lurrak eta ondasun naturalak		166.653.810
Eraikinak		600.752.116
Makinak, instalazioak eta tresnak		18.897.319
Garraio elementuak		9.647.776
Altzariak		14.824.434
Informazio-prozesuetarako ekipoak		6.596.356
Bestelako ibilgetu materiala		9.058.919
Espezializaturiko instalazio konplexuak		13.230.118
IBILGETU EZ-MATERIALA	13.038.776	8.884.776
Aplikazio informatikoak		1.071.575
Ikerketak eta proiektuak		11.912.404
Bestelako ibilgetu ez-materiala		54.797
AZPIEGITURAK ETA ERABILERA OROKORRERAKO ONDASUNAK	9.719.951	9.719.951
Herri-ondasunetako inbertsioak		9.719.951
IBILGETU FINANTZARIOAK	402.000	532.000
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak		380.000
Oblig., bonoak eta errenta fink. beste batzuk		22.000
Emandako maileguak		0
IBILGETUA, GUZTIRA	862.821.575	832.695.373
ZORDUNAK	216.132.334	176.811.128
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak		214.914.168
Aurrekontuz kanp. bestelako zordunak		1.218.166
KONTU FINANTZARIOAK	112.196.406	80.084.937
Kutxa		62.319
Bankuak eta kreditu-erakundeak		112.134.087
AKTIBOA, GUZTIRA	1.191.150.315	1.089.591.438
ABALAK ETA BERMEAK	30.545.731	126.000
Gordailuko baloreak		30.545.731

AKTIBOA	99-12-31ko balantzea		98-12-31ko balantzea	
ONDAREA	831.730.494		831.730.494	
Ondarea		831.730.494		831.730.494
ERABILERA OROKORREKO ONDAREA	192.616.014		212.346.855	
Erabilera orokorreko ondarea		192.616.014		212.346.855
JASOTAKO KAPITAL DIRULAGUNTZAK	30.144.690		0	
EPE LABURREKO ZORRAK	71.219.920		45.331.035	
Agindutako ordainketen ondoriozko hartzek.		51.952.987		26.777.437
Dirusarrerak itzultzeagatik hartzekodunak		1.500		0
Erakunde publikoak		4.091.148		4.155.114
Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak		15.174.285		14.398.484
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	277.337		183.054	
Aplikatzeke dauden dirusarrerak		277.337		183.054
EKITALDIAREN EMAITZA (ETEKINA)	65.161.860		0	0
PASIBOA, GUZTIRA	1.191.150.315		1.089.591.438	
ABALAK ETA BERMEAK	30.545.731		126.000	
Gordailuko baloreak		30.545.731		126.000

Noingo Udaleko emaitzen kontua – 1999ko ekitaldia (pezetatan)

1999ko emaitza arruntak			
Zenbatekoa	ZOR	HARTZEKO	Zenbatekoa
111.778.592	Langileen ordainsariak	Salmentak	23.152.109
90.306.911	Lanak, hornidurak eta kanpoko zerb.	Jabetzaren errentak	21.279.966
199	Gastu finantzarioak	Tributuak	211.219.800
100.684.717	Transferentzia arruntak	Zerga arruntak	32.566.643
		Transferentzia arruntak	140.062.050
47.316.317	Kapital transferentziak	Kapitalaren gaineko zergak	6.883.951
85.699.928	Saldo hartzekoduna (Etekin arrunta)	Bestelako dirusarrerak	622.145
435.786.664	ZOR, GUZTIRA	HARTZEKO, GUZTIRA	435.786.664

1999ko ohiz kanpoko emaitzak			
Zenbatekoa	ZOR	HARTZEKO	Zenbatekoa
		Bestelakoak	54.042
54.042	Saldo hartzekoduna (ohiz kanp. etek.)	Saldo zorduna (ohiz kanpoko galera)	0
54.042	ZOR, GUZTIRA	HARTZEKO, GUZTIRA	54.042

Eskubide eta betebeharren aldatzea, itxitako ekitaldiak			
Zenbatekoa	ZOR	HARTZEKO	Zenbatekoa
24.716.859	Deuseztaturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideen saldoa zuzentzea	5.422.724
-986.458	Aitorturiko beteb. saldoa zuzentzea		
2.284.433	Agind. ordainket. saldoa zuzentzea	Eskub. eta betebeh. aldatzea (sdo. zorduna)	20.592.110
26.014.834	ZOR, GUZTIRA	HARTZEKO, GUZTIRA	26.014.834

Emaitzen kontua			
Zenbatekoa	ZOR	HARTZEKO	Zenbatekoa
20.592.110	Aldaketa (saldo zorduna)	Etekin arrunta	85.699.928
65.161.860	Ekitaldiaren etekina	Ohiz kanpoko etekina	54.042
85.753.970	ZOR, GUZTIRA	HARTZEKO, GUZTIRA	85.753.970

Noingo Udaleko diruzaintzako gerakinaren egoera 1999-12-31n
(pezetak, milakotan)

Zenbatekoak	
1. (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	106.121
Dirusarreren aurrekontukoa. Indarreko aurrekontua	96.179
Dirusarreren aurrekontukoa. Itxitako aurrekontuak	118.736
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa (*)	1.218
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(110.012)
2. (-) Ekialdi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(71.496)
Gastu aurrekontukoa. Indarreko aurrekontua	(49.221)
Gastu aurrekontukoa. Itxitako aurrekontuak	(2.732)
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	(19.543)
3. (+) Diruzaintzako fondo likidoak ekitaldi bukaeran	112.196
4. Finantzazio atxikiko gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	11.390
6. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (1 + 2 + 3 - 4)	135.431
DIRUZAINZA GERAKINA, GUZTIRA	146.821

Noingo Kultura Patronatua – 1999ko ekitaldia

Dirusarreren aurrekontuaren betetze-maila

Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin-betiko kreditua	Aitortutako eskubideak	Betetze maila %	Kobratua	Kobrantzaren %	Kobratzeke	
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	1.700.000	0	1.700.000	2.449.700	144	2.449.700	100	0
Transferentzia arruntak	4	30.745.000	300.000	31.045.000	32.063.801	103	31.475.284	98	588.517
Ondare dirusarrerak	5	5.000		5.000	5.698	114	5.698	100	
Finantza-aktiboak	8	0	8.325.000	8.325.000	0	0	0		0
Dirusarrerak, guztira		32.450.000	8.625.000	41.075.000	34.519.199	84	33.930.682	98	588.517

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin-betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetze maila %	Ordainduta	Ordainduta-koaren %	Ordaintzeke	
Ond. arruntak eta zerb. eros.	2	24.330.000	1.870.000	26.200.000	26.027.054	99	24.807.140	95	1.219.914
Transferentzia arruntak	4	6.820.000	(91.000)	6.729.000	6.511.007	97	3.290.757	51	3.220.250
Inbertsio errealak	6	1.300.000	6.846.000	8.146.000	8.139.975	100	8.139.975	100	0
Gastuak, guztira		32.450.000	8.625.000	41.075.000	40.678.036	99	36.237.872	89	4.440.164

Noingo Kirol Patronatua – 1999ko ekitaldia

Dirusarreraren aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasierako kreditua	Alda-ketak	Behin-betiko kreditua	Aitorrutako eskubideak	Betetze maila %	Kobratua	Kobrantzaren %	Kobratzeke
Tasak eta bestelako dirusar.	3	2.945.200	0	2.945.200	2.026.600	69	2.026.600	100	0
Transferentzia arruntak	4	18.379.722	(1.000.000)	17.379.722	17.034.663	98	17.034.663	100	0
Ondare dirusarrerak	5	20.000		20.000	1.434	7	1.434	100	
Finantza-aktiboak	8	0	1.467.348	1.467.348	0	0	0		0
Dirusarrerak, guztira		21.344.922	467.348	21.812.270	19.062.697	87	19.062.697	100	0

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasierako kreditua	Alda-ketak	Behin-betiko kreditua	Aitorrutako betebeharrak	Betetze maila %	Ordainduta	Ordainduta-koaren %	Ordaintzeke
Ond. arruntak eta zerb. eros.	2	8.884.334	(81.200)	8.803.134	6.799.056	77	6.256.219	92	542.837
Transferentzia arruntak	4	11.035.588	1.467.348	12.502.936	11.960.421	96	11.909.358	100	51.063
Inbertsio errealak	6	1.425.000	81.200	1.506.200	1.428.868	95	1.128.868	79	300.000
Gastuak, guztira		21.344.922	1.467.348	22.812.270	20.188.345	88	19.294.445	96	893.900

Noingo Musika Eskola – 1999ko ekitaldia

Dirusarreraren aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasierako kreditua	Alda-ketak	Behin-betiko kreditua	Aitorrutako eskubideak	Betetze maila %	Kobratua	Kobrantzaren %	Kobratzeke
Tasak eta bestelako dirusar.	3	10.661.510	0	10.661.510	12.451.423	117	12.086.223	97	365.200
Transferentzia arruntak	4	26.800.000	372.111	27.172.111	27.277.538	100	23.372.111	86	3.905.427
Ondare dirusarrerak	5	0	0	0	2.863		2.863	100	0
Dirusarrerak, guztira		37.461.510	372.111	37.833.621	39.731.824	105	35.461.197	89	4.270.627

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

	Kap.	Hasierako kreditua	Alda-ketak	Behin-betiko kreditua	Aitorrutako betebeharrak	Betetze maila %	Ordainduta	Ordainduta-koaren %	Ordaintzeke
Langileen ordainsariak	1	30.331.691	1.100.545	31.432.236	31.432.236	100	30.696.619	98	732.807
Ond. arruntak eta zerb. eros.	2	4.293.107	(1.245.545)	3.047.562	3.046.518	100	2.656.997	87	389.521
Korrituak	3	0	405.600	405.600	405.600	100	405.600	100	0
Transferentzia arruntak	4	355.000	237.304	592.304	592.302	100	171.503	29	420.799
Inbertsio errealak	6	2.019.171	(125.793)	1.893.378	1.887.869	100	1.260.119	67	627.750
Finantza-aktiboan aldaketa	8	462.541	0	462.541	0	0	0		0
Gastuak, guztira		37.461.510	372.111	37.833.621	37.361.715	99	35.190.838	94	2.170.877

VI. IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIO OROKORRAK

Ondoren aurkeztuko ditugu Udalaren eta haren erakunde autonomoen arlo bakoitzeko antolamendua eta barne kontrol sistema hobetzeko iruzkin eta ondorio garrantzitsuenak, bai eta egokitzen jo ditugun gomendio orokorrak ere.

VI.I. 1999ko GASTUEN AURREKONTUA

VI.1.1. Langileen lansariak

Atal honetan aitorturiko beharrek 111,6 milioi egiten dute guztira, hau da, gastuen % 28.

Plantilla organikoaren arabera, 24 dira Udalaren lanpostuak; ikuskatutako ekitaldian, horietariko 20 betetik daude eta gainontzeko 4ak hutsik.

Gai hori gobernatzen duen araudiak agindutako hautapen-probarik egin gabe sartu ziren egun udalean funtzionarioak direnetako asko, egia bada ere, 1995etik aitzina ez dela inoiz gertatu.

Atal honetako gastuak arrazoizkoak badira ere, arlo honi buruz egindako berrazterketaren ondorioz, barne kontrolaren zenbait akats agerian gelditu da. Horrexegatik, beharrezko deritzogu Udalak prozedurak osatzeari, gomendio hauei jarraikiz:

Langileri arloan egin beharreko prozedurak zehaztu eta idatziz jasotzea, eta, era berean, arreta berezia eskaintzea gastu horien kontu-hartzai-letzari eta ordainketari, eta aparteko orduen kontrolari.

Langileen espedienteen artxiboa sortzea, langilearen gaineko inguruabar pertsonal eta administrazioak eta haren ordainsarien gainekoak jasotzeko.

Langileak sartzeko hautapen-probak beharrezkoak izanen dira, legediak ezarri moduan, funtzio publikoan sartzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzeko.

VI.1.2. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Atal honetako gastuek 90,4 milioi pezeta egiten dute guztira, hau da, gastuen % 22,5, honela xehaturik:

Kontzeptua	Gastua, 1999-12-31n
Errentamenduak	,3
Konponketak eta mantenimendua	23,7
Materiala, hornidurak eta beste	64,7
Kalteordainak zerbitzua dela-eta	0,1
Argitalpen gastuak	1,6
Guztira	90,4

1999ko abenduaren 31ra arte kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak dira. Dena den, erosketen alorra aztertu ondoren, akats batzuk antze-man dira barne kontrolean. Beraz, gure ustez, udalak osatu beharko lituzke bere prozedurak, gomendio hauen arabera:

• *Erosketetarako prozedura normalizatua zehaztea, erosketa-gida batean bilduz, eta ondoko inguruabarrak finkatzea:*

a) *Erosketak egiteko eskumenak bereiztea.*

b) *Fakturak berrikustea.*

c) *Erositakoa hartu eta ordainagiriak gordetzea.*

d) *Fakturak onetsi eta ordaintzea.*

• *Kontratuei buruzko Foru Legea hertsiki aplikatzea, ondokoari dagokionez bereziki:*

a) *Esleipen modua.*

b) *Eskaintzak baloratzeko irizpideak pleguetan finkatzea.*

c) *Hasierako kontratuaren aldaketak.*

d) *Deialdiaren publikitatea.*

VI.1.3. Transferentzia arruntak

Transferentzia arruntek 100,7 milioi pezeta egiten dute guztira, hots, gastu guztien % 25.

Atal honetako gastuen % 77 erabili da udal patronatuen funtzionamendurako dirulaguntzak ordaintzeko.

Kontzeptua	Milioi pezeta
Kultura patronatua	27,3
Musika eskola	32,9
Kultura patronatua	17,1
Guztira	77,3

Gastuen % 16, hots, 16,4 milioi pezeta, Oinarritzko gizarte zerbitzuaren dirulaguntzari dagokio.

Gainontzeko dirulaguntza arruntek honako hauek izan dituzte helburu: Jubilatuen elkarteak

(1,4 milioi pezeta), ikastetxe publikoa (1,5 milioi), Institutua (milioi bat) eta gizarte lankidetzako proiektuak (2 milioi).

Gure azterketaren arabera, 1999ko aurrekontuan egindako transferentziak arrazoizkoak dira eta behar bezala erregistratu dira. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

Kontu-hartzaileak txosten bat prestatzea, patronatuei eta gizarte zerbitzuen mankomunitate-ari eman beharreko dirulaguntzetarako kontusaile-en gainean, haiek antolatutako jarduerak aintzat hartuz.

VI.1.4. Inbertsioak

Inbertsio gastuek, 6. atala osatzen baitute, 50 milioi pezeta egin dute guztira, hau da, gastu guztien % 12. Behin betiko aurrekontuaren gaineko betearazpen portzentajea % 42 izan da.

Hasierako aurrekontuari 50 milioi pezeta gehitu zaizkio, hau da, % 72, egindako aldaketengatik. Gizarte Etxea ekitaldi honetako inbertsioetan bere zenbateko osoz sartzeak eragin ditu aurrekontuko aldaketak eta betearazpen maila txikia, nahiz eta obra hori 2000ko ekitaldira arte hasiko ez den.

Egindako inbertsioek aurrekontuko lerro asko izan dute helburu. Hona hemen batzuk:

Inbertsioaren espedientea	Aitortua (pezetatan)	Prozedura
Ikastetxeko sarbideak	7.497.478	Lehiaketa
Ikastetxea handitzeko lanak	7.258.136	Lehiaketa
HAPOn hasierako onespena	3.480.000	Lehiaketa
Administrazioarekiko auzia ebaztea	1.308.861	
Herriko argiak (Otno)	3.333.450	Lehiaketa
Ikuzgailu-lehorgailua erostea	1.638.742	Hitzartua, publizitaterik gabe
Gizarte Etxea	1.676.334	Presako lehiaketa
Ibilgailu bat erostea	1.782.000	Hitzartua, publizitaterik gabe
Guztira	27.975.001	

Lagin hori dagokio egindako gastuen % 56ri, eta kontratu mota diferenteak hartzen ditu: obra, laguntza tekniko eta hornidurakoak.

Kontratazio prozedurek bat egiten dute publizitate eta lehiakortasun printzipioekin, baina kontratuen izapidaketan ondoko akatsa antzeman da:

- Egindako obra edo hornidura hartzeko aktarik ez da egiten.

Ondorio horiei jarraikiz, gomendio egiten dugu Kontratuei buruzko Foru Legea hertsiki bete dezaten, hartzeko aktei buruzkoan bereziki.

VI.1.5. Kapital-transferentziak

Kapital-transferentzietako gastuek, 7. atala osatzen baitute, 47,3 milioi pezeta egin dute guztira, hau da, gastu guztien % 12.

Hasierako aurrekontuari 21 milioi gehitu zaizkio, hau da, % 81, egindako aldaketengatik.

Hona hemen kapital-transferentzien betearazpena, xehaturik:

Kontzeptua	Aitortua (milioi pezeta)
Dorre-Elortzibar	10
Gerendiain	16
Zabalegi	12
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	9
Guztira	47

Noain-Elortzibarko Udala osatzen duten kontzejuetan obrak egiteko erabili da transferentzia horien % 80, eta gainerako % 20 eliza berritzeko eta kongregazio erlijioso batek sustatutako haurtzaindegi proiektu bati dagozkion tasak eta EIOZa pagatzeko.

Egindako azterlanaren arabera, atal honetako zenbateko horiek arrazoizkoak dira.

Transferentzia horiek guztiak osoko bilkuran erabaki dira. Kontzejuendako transferentzietan dagokienez, urtero egiten dira, txandaka, eta beharren arabera, betiere, aurrekontuko eskuragarritasuna abiapuntutzat hartuz. Ez dago laguntza horiek emateko iritzi objektibo finkaturik. Izan ere, orain arte kontzejuen eskaeren eta egoera ekonomikoen balorazioa egin ondoren esleitu dira, oinarriak argitara edo ezagutzera eman gabe. Gabezia hori konpontzearen, oinarri batzuk ari dira prestatzen, eta onetsi ondoren, argitaratuko dira, eta aurrerantzean prozesua gobernatuko duten baldintzak finkatuko.

VI.2. 1999ko DIRUSARREREN AURREKONTUA

VI.2.1. Zuzeneko eta zeharkako zergak

141,6 milioi egiten dute aitorturiko eskubideek zuzeneko zergengatik, hau da, dirusarrera guztien % 30; zeharkako zergek, berriz, 109 milioi, dirusarrera guztien % 23, alegia.

1999an indarra zuten tipo eta portzentajeak, Udalaren osoko bilkuran onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitziren, honako hauek dira:

	Toki Ogasunei buruzko Foru Legea	Udala
Landalur kontribuzioa	0,1-0,8	0,56
Hirilur kontribuzioa	0,1-0,5	0,2210
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (indizea)	1-1,4	
1 eta 2. poligonoak		1
3, 4 eta 5. poligonoak		1
6 eta 7. poligonoak		1
8 eta 9. poligonoak		1
10, 11 eta 12. poligonoak		1
Trak. mek. ibilgailuen gaineko zerga	Legeak agindutakoa	Legeak agindutakoa
EIOZ	% 2-5	% 4
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga		
5 urte bitarte	% 2,2-3,3	2,2
10 urte bitarte	% 2,1-3,2	2,1
15 urte bitarte	% 2,0-3,1	2
20 urte bitarte	% 2,0-3,1	2
Zerga-zama	% 8-20	% 10

Dirusarreraren arlo horri buruzko azterlanaren ondorioz, esaten ahal dugu zuzeneko eta zeharkako zergen kontrol eta kudeaketarako prozedurak egokiak direla, eta aurrekontu-betetzeko zenbatekoak ongi erregistratu direla.

Hala ere, egiaztatu dugu, EIOZaren likidazioetan, behin-behineko likidazioa besterik ez dela egiten, proiektuen bukaerako kostuaren agiririk edo obren amaierako ziurtagiririk eskatzen ez denez, ez baita behin betiko likidaziorik egiten.

Gai horren gainean indarra duen legedia betetzea gomendatzen dugu, gutxienez ere, obren amaierako kostu erreala egiaztatzea, plusbalioen gaineko zergaren oinarria zehaztu ahal izateko.

VI.2.2. Tasak eta bestelako dirusarrerak

Atal honetako eskubide aitortuek 39,4 milioi pezeta egiten dute, dirusarrera guztien % 8, alegia.

Hona 1999ko ekitaldiko dirusarrerak, kontzeptuen arabera xehaturik:

Kontzeptua	Aitortua	Kobratua	Kobratzeko
Agiriak luzatzea	351.055	351.055	0
Fotokopiak	33.918	33.918	0
Noaingo igerilekuak	6.288.223	6.288.223	0
Hilerriko nitxoak (tasa)	678.980	502.420	176.560
Establ. irek. lizentzia	11.760.202	11.345.407	414.795
Obra lizentzia (tasa)	545.000	470.000	75.000
Lizentzia: 1. okup./deskal.	508.151	508.151	0
Hesiak eta aldamiok	45.000	45.000	0
Postuak eta barrakak	31.350	31.350	0
Zangak	6.860	6.860	0
Fensa	7.870.061	2.742.856	5.127.205
Telefonica	3.328.688	3.328.688	0
Enagas	202.264	202.264	0
Kalez kaleko salmenta	87.225	87.225	0
Gas Navarra: lurzor. tasa	1.378.135	0	1.378.135
Itzulia, itxiriko ekitaldietatik	18.194	18.194	0
Isunak	3.073.448	19.120	3.054.328
A. betearazlearen erre.	2.614.235	2.606.572	7.663
Bestelako dirusarrerak	34.951	34.951	0
Ibarraren egunerako sarrerak	391.500	391.500	0
Instalazioetako argia	177.500	102.500	75.000
Guztira	39.424.940	29.116.254	10.308.686

Tasen arloari buruz egindako azterlanak ondo-rioztatu du kontrol eta kudeaketarako prozedurak eta ekitaldiko dirusarreraren zenbatekoak egokiak direla.

VI.2.3. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak

190 eta 30,1 milioiko dirusarrerak aitortu dira, hurrenez hurren; dirusarrera guztien ehuneko 30 eta 6.

Hona dirusarrera horiei buruzko xehetasunak:

Transferentzia arruntak	Aitortua	Kobratua
Bake epaitegitik eta erroldatik bueltatutakoa	736.030	553.905
Montepioen finantzazioa	8.163.938	8.163.938
Kontzejuak eta N.G.a: ikastetxea	2.555.097	1.649.493
Kirol, musika eta bestelakoen sustapena	8.037.322	7.034.655
Nafarroako Gobernua: DBHko institut. dirulaguntza	7.594.404	7.594.404
Nafarroako Gobernua: herriko medikua, Beriaingo autobusa	411.778	54.703
Toki ogasunetako fondoan parte hartzea	112.063.481	112.063.481
Informazio aldizkariaren ekarpena	500.000	0
Guztira	140.062.050	137.114.579

Kapital transferentziak	Aitortua	Kobratua
Nafarroako Gobernua. Kaleen urbanizazioa	1.720.334	1.720.334
Nafarroako Gobernua. Lehen Hezkuntzako ikasgelak	6.809.474	0
Nafarroako Gobernua. Ikastetxeko sarbideak	3.748.739	0
Nafarroako Gobernua. PGPC lag. teknik. prestak.	500.000	250.000
Nafarroako Gobernua. 1998ko baso-lanak	1.527.236	1.527.236
Nafarroako Gobernua. Gizarte etxerako laguntza	12.114.010	0
Nafarroako Gobernua. Elortz ibaia lehengoratzeko lag.	123.442	0
Nafarroako Gobernua. Otano hiru urtekoa	2.348.688	2.348.688
Nafarroako Gobernua. Nafarroa kaleko hiru urtekoa	1.252.767	1.252.767
Guztira	30.144.690	7.099.025

Tasen arloari buruz egindako azterlanak ondo-rioztatu du kontrol eta kudeaketarako prozedurak eta kontzeptu bakoitzarengatik aitorturiko eskubi-deak egokiak direla.

VI.2.4. Ondareko dirusarrerak

Atal honetan aitorturiko eskubideek 5,6 milioi pezeta egiten dute guztira, hau da, ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 1. Hona zehatz-mehatz:

Kontzeptua	Aitortua	Kobratua
Tituluen korrituak	2.180	2.180
Kontuen korrituak	1.041.105	1.041.105
Bidezarra pilotalekua errentan ematea	29.100	29.100
Aparkalekuko lurra errentan ematea	2.000.000	2.000.000
Taberna, kirol instalazioak	957.480	885.0630
Laborantzako lurren aprobetxamendua	258.150	0
Herri larreak	172.448	0
Telefonia mugikorra errentan ematea	1.168.817	1.137.993
Guztira	5.629.280	5.095.441

Gure azterketaren arabera, atal honetako diru-sarreraren aurrekontuko zenbatekoak, kontzeptu horiek direla-eta, arrazoizkoak dira.

VI.3. EGOERAREN BALANTZEA 1999ko ABENDUAREN 31n

VI.3.1. Balantzea - Ibilgetua

Ibilgetua osatzen duten saldoak 1992ko inbentario batetik jaso dira. Beraz, nahiz eta 1999an nolabaiteko bahetze egin, ezin dira bildu, modu oso eta gaurkotuan, Udalak 1999ko abenduaren 31n zituen ondasun guztiak.

VI.3.2. Zordunak

Saldoa, 1999-12-31n, 216,1 milioi pezetakoa da, honela xehaturik:

Kontzeptua	Pezetak, milioitan
Aurrekontu arrunteko zor garbiak	93,2
Itxiriko aurrekontuetako zor garbiak	118,7
Aurrekontukoak ez diren zorrak	1,2
Guztira	216,1

Gure azterlanaren arabera, aurrekontu arrunteko zorren atalak ongi jasotzen ditu kobratzeko dauden ekitaldiko eskubideak. Dena den, balantzea egitean, ekitaldi itxietako saldoetan ez ziren behar bezala biltzen aurreko ekitaldietako udalaren aldeko eskubideak.

Hala eta guztiz ere, aurreko ekitaldietako saldo horiek oso sakon aztertu eta orraztu dira, 2000ko ekitaldian zehar, kontabilitateko saldoak dirubilletarako agentzian kobratzeko dauden zorrek inparekatu arte.

Gure ustez, informazioa bidaltzeko prozedura berria diseinatu behar da, dirubilletarako agenteekin batera, banakako zordunen atala kontrolatu eta kontabilitatean islatzeko. Kobroen zenbatekoak

ak bat etorri behar du egiazko dirusarrerekin, eta, halaber, baliogabetzeak, kobratzeko ezintasuna eta kaudimengabeziak banan banan dokumentatu eta egiaztatzea behar dira.

VI.3.3. Finantza-kontuak

Balantzea egin eguneko saldoa haxe zen zehatz-mehatz:

Kontzeptua	Pezetak, milioitan
Aurrezki-kutxak	0,1
Bankuak	112,1
Guztira	112,2

Egindako azterlanak agertu du ondare-masa horretako saldoak arrazoizkoak direla eta ongi islatzen dutela udalaren diru eskuragarritasuna, aurrezki-kutxa eta banketxetan, 1999ko abenduaren 31n.

VI.3.4. Epe laburreko zorrak

Epe laburreko zorrak 71,2 milioi pezeta egiten dute, guztira; horietako 52 milioi aurrekontuko hartzekodunei dagozkie, 4 milioi herri entitate hartzekodunei eta 15 aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunei.

Gure azterlanaren arabera, balantzearen atal honetako kontabilitateko saldoak arrazoizkoak dira, eta haietan islatzen dira Udalaren epe laburreko zorrak, beste batzuekin, balantzea egin egunean.

VI.4. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Atal honetan, Udalaren hiru erakunde autonomoetan egindako berriskupenaren ondorio nagusienak biltzen dira: Julián Gayarre musika eskola, Kultura patronatua eta Kirol patronatua.

Informazio ekonomikoaren aurkezpena eskematizatzearen, hona hemen erakunde autonomo horien aurrekontuetako datu nabarmenenak:

Gastu eta dirusarreraren betetzea (Pezetak, milioitan)

Gastuak	Hasierakoa	B. betikoa	Aitortua	Betetak. %
Musika eskola	37	37	37	100
Kultura patronatua	32	41	40	99
Kirol patronatua	21	23	20	88
Dirusarrerak	Hasierakoa	B. betikoa	Aitortua	Betetak. %
Musika eskola	38	38	39	105
Kultura patronatua	32	41	34	84
Kirol patronatua	21	22	19	87

Gastuak eta dirusarrerak bere izaeraren arabera (Pezetak, milioitan)

Gastuak	Musika eskola	Kultura patronatua	Kirol patronatua
Langileak	31,4	–	–
Erosketak	3	26	6,8
Finantzarioak	0,5	–	–
Transferentzia arruntak	0,6	6,5	11,9
Inbertsioak	1,9	8,1	1,4
Kapital transferentziak	–	–	–
Finantza-pasiboak	0,4	–	–
Dirusarrerak	Musika eskola	Kultura patronatua	Kirol patronatua
Tasak eta bestelako dirusarrerak	12	2,5	2
Transferentzia arruntak	27	32	17

Udalaren ekarpena (Pezetak, milioitan)

Transferentziak	Musika eskola	Kultura patronatua	Kirol patronatua
Arruntak	27	32	17
Kapitalekoak	–	–	–

VI.4.1. Julián Gayarre musika eskola

Aurkeztutako urteroko kontuak, oro har, Musika eskolak 1999ko ekitaldian egindako jardueraren adierazgarri dira.

Datu ekonomiko nagusi gisa ondokoak aipatzen ditugu:

Ez du epe ertain edo luzeko zorrik, eta hartze-kodun eta hornitzaileen aldeko epe laburreko zorrek 4,2 milioi pezeta egiten dute guztira.

Eskolaren aldeko epe laburreko zorra 4,2 milioitara iristen da.

Diruzaintzako gerakina, 1999ko abenduaren 31n, 2,3 milioikoa da.

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

Musika eskolako ondasunen inbentarioa egitea.

Ordaindu gabeko tasak kobratzea, eta horretarako, behar izanez gero, Udalak ezarritako prozedura orokorrak erabiltzea.

VI.4.2. Kultura patronatua

Aurkeztutako urteroko kontuak, oro har, Kultura Patronatuak 1999ko ekitaldian egindako jardueraren adierazgarri dira.

Datu ekonomiko nagusi gisa ondokoak aipatzen ditugu:

Kobratzeko eskubideak ditu, 2 milioi pezetakoak.

4,6 milioi ditu eskuragarri, dirutan, aurrezki-kutxa eta bankuetan.

Diruzaintzako gerakina, 1999ko abenduaren 31n, 2,1 milioikoa da.

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

Udalak patronatuaren jardueren kontrol eta kontu hartze lanak egitea.

Legea hertsiki betetzea kultura jardueretako laguntza teknikoaren kontratazioa esleitzean, behar bezala justifikatu eta baldintzen pleguak aldatu gabe egiten diren presako esleipenak saihestuz. Horretaz gain, obra kontratuetan, kontratu sinatzea eta behar den faktura eskatzea.

Urtero ematen diren dirulaguntzen deialdia argitaratzea, bai eta horiek banatzeko irizpideak ere.

Kultura patronatuko ondasunen inbentarioa egitea.

VI.4.3. Kirol patronatua

Aurkeztutako urteroko kontuak, oro har, patronatu honek 1999ko ekitaldian egindako jardueraren adierazgarri dira.

Diruzaintzako gerakina, 1999ko abenduaren 31n, 347.700 pezetakoa da.

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

Udalak Kirol Patronatuaren jardueren kontrol eta kontu hartze lanak egitea.

Patronatuak zerbitzuak emateko tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantza gaurkotu eta onestea.

Patronatuko ondasunen inbentarioa egitea.

Lan hau egiteko ardura izan duen Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA**Noingo Udaleko finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n**

Ondorengo koadroan 1999. urteko Noingo Udaleko ratio edo adierazle nagusiak erakusten dira, eta baita lehengo ekitaldikoak ere.

NOAINGO UDALA - Datu kontsolidatuak

Adierazleak	1999	(1) 1998	Aldaketa (%) 1999/1998
Aurrekontuko superabita/defizita (milioitan)	66	97	-32
Diru-sarrerak, bizilaguneko (pezetatan)	116.891	113.213	3
Gastuak, bizilaguneko (pezetatan)	100.331	88.094	14
Finantza-zama, bizilaguneko (pezetatan)	0	961	-100
Tributu bidezko per capita diru-sarrerak (pezetatan)	72.742	58.821	24
Gastu arruntak, bizilaguneko	75.920	72.855	4
Kobrانتzen betetzea (%)	79	79	0
Ordaintzen betetzea (%)	88	93	-5
Zorpetze-maila (%)	0	1	-100
Zorpetze-muga (%)	31	26	19
Zorpetze-ahalmena (%)	31	25	23
Aurrezki garbia (%)	31	25	23
Langileria-indizea (%)	28	32	-11
Inbertsio-indizea (%)	24	17	41
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (%)	37	46	-21
Gastu arruntak / gastuak guztira (%)	76	83	-9
Dirusarrera arruntak / dirusarrerak guztira (%)	93	85	9

Kalkulua egiteko, 1998rako, 3.879 biztanleko kopurua hartu da abiapuntutzat -1998ko ekainaren 30eko errolda-, eta 1999rako, 3.988 biztanlekoa, udalaren datuen arabera.

(1) Ekitaldi hori fiskalizatu gabe dago.

Azterlan horretatik honako hau ondoriozta- tu da:

1999ko ekitaldian, 66 milioi pezetako superabita egon da, hau da, 1998koa baino txikiagoa, gastuek dirusarrerak baino proportzio altuagoan egin baitute gora, 1998ko baloreekiko.

Bizilagun bakoitzeko diru-sarrerak ehuneko 3ko igoera izan dute; gastuek, ordea, ehuneko 14koa.

1999ko ekitaldian Udalak zorrik izan ez duenez, bizilagun bakoitzeko finantza-zama zerora murriztu da, udalaren finantza egoera garbia baita.

Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak % 24 egin dute gora; langileri gastuen portzentajeak, berriz, bera egin du, eta inbertsioenak gora.

Zorpetze-mugak eta aurrezki garbiek gora egin dute, dirusarrera arruntan, bereziki tributu bidezko dirusarreraren, hazkundearen ondorioz.

Tributu bidezko dirusarreraren hazkundeari esker, dirulaguntzekiko menpekotasuna gutxitu da.

1999ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, aipatzekoa da diruzaintzako gerakina 147 milioi pezetakoa dela. Gerakin horretako 11 milioi inbertsioak finantzatzeko erabiliko dira, eta gainontzekoa, hots, 136 milioi pezeta, kasu bada, hurrengo ekitaldietako gastuen finantziararako.

Diruzaintzako gerakin positiboa, aurrezki garbiaren ratio nabarmena eta zor bizirik ez egotea finantza-egoera garbiaren isla dira.

Azkenik, ondoko laukitxoan, eta zenbait ratio-tarako, Noaingo Udalaren 1999ko informazioa erkatu da biztanle kopuru berdintsu duten Nafarroako udalen 1998ko batez bestekoarekin. Horri dagokionez, gogorazi behar da udalek era ezberdinetan ematen dituztela zerbitzuak, eta kalitatea ez dela beti berbera izaten.


Ratioak	3.001-5.000 biztanleko udalak (1998. urtea) (1)	Noaingo Udala (1999. urtea)
Gastu arrunta/biztanle (pezetatan)	74.385	75.920
Dirusarrera arrunta /bizt (pezetatan)	89.915	109.275
Zerga dirusarrera/biztanl (pezetatan)	47.245	72.742
Zorpetze-muga (%)	20	31
Zorpetze-maila (%)	9	0
Zorpetze-ahalmena (%)	11	31

(1) , Datu horiek Toki Administrazioako Departamentuak igorri ditu.

Noaingo Udalaren gastu arrunta txikixeagoa da biztanle kopuru berdintsua duten Nafarroako udalen batez bestekoaren aldean, % 2 baxuago hain zuzen ere. Baina, biztanle bakoitzeko dirusarrera arrunta, berriz, % 22 handiagoa da batez bestekoa baino.

Noaingo Udaleko biztanle bakoitzeko zerga dirusarrerak % 54 handiagoak dira biztanle kopuru berdintsu dutenen batez bestekoaren aldean, 1999ko aurrekontualdian EIOZa dela-eta aparteko dirutza bildu baita.

ANEXO I. NOAINGO UDALAREN ORGANIGRAMA. 1999ko XII-31ko PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERA



II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

**NOINGO UDALAK AURKEZTUTAKO ALE-
GAZIOAK**

Kontuen Ganbararen auditoretza-txostena aztertu ondoren, oro har, zuzena iruditu zaigu eta, halaber, bertan gomendutakoa betetzen saiatuko gara.

Dena den, gomendio horietako batzuk betetze-ko, lan-giro egokia behar da, eta, tamalez, gaur

egun ez dugu, langileek euren eginkizunak bete-
tzeko toki fisiko nahikorik ez baitugu.

Hori dena txostenean ageri den arren, toki azpiegituretarako hiru irteko planak ukatu egin du egoitza berriaren finantziazioa.

Noainen, 2001eko martxoaren 6an.

Alkate udalburua: Miguel Elizari Reta



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--